

Made in Galiza





**Xose Luis Gonzalez Sende** | *Sechu Sende* izengoitia-rekin ezaguna, Padronen jaio zen, 1972an. Colectivo Poético Serán Vencello taldean poesia idazten hasi zen, eta 1998an *Odiseas* poema liburua argitaratu zuen. 2003an, Blanco Amor saria irabazi zuen *Orixe* eleberriarekin, eta 2007an, Asociación Galega de Editoresek Anxel Casal saria eman zion *Made in Galiza* ipuin bildumari.

Sechu Sende

Made in Galiza



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2012ko abuztua

© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Sechu Sendek OBRARENA  
© Creative Commons  
Txerra Rodriguezek  
ITZULPENARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
San Isidro, 35-1A  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

ISBN  
978-84-15313-26-7  
LEGE GORDAILUA  
NA. 1.464-2012



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

ARGAZKIA  
davespertine

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
Graficas Lizarra  
Tafallako errepeidea 1. Km.  
31132 Villatuerta - Nafarroa



## HITZAURREA

AMETSAK ETORKIZUNEKO ERREALITATEAREN zirriborroak omen dira. Ametsek etorkizuneko errealitatea marrazten dute, aldatzen dute. Ametsak gauzatzeko, baina, elkarrekin egin behar dugu amets, elkarrekin. Hitzorduak jarri beharko ditugu denok egun berean eta leku berean elkarrekin amets egiteko, Sechu Sendek olerki batean esaten duen bezala. Amets egitera eta amets horiek gauzatzera dei egiten dizu liburu honek. Ametsak partekatzeko herri batetik besterako bideak ere behar ditugu. Bide mota asko daude: errepideak, autobideak, bidexkak, bidezidorrak, ardi-bideak... eta bidegorriak. Liburu honek bidegorria izan nahi du, galizieratik euskarara doan bidegorria, munduko beste hainbat hizkuntza gutxitu ere zeharkatuz. Milaka mundu aurkitzeko bidegorria. Bidegorri horietan topo egiten dugu geure iraganari geroa bilatzen ari garenok, nahiz eta sarriago topo egin beharko genukeen. Bidegorritxo gehiago egin behar

ditugu (autobideetan ez goaz eroso gu), bide estu gehiago, ardi-bide gehiago. Elkarrekin ikasteko, elkarrekin partekatzeke, elkarrekin gozatzeko, elkarrekin amets egiteko eta, zergatik ez, batzuetan elkarrekin negar egiteko. Bidegorri hau aspalditik hasi nintzen egiten. Txikitan Uretamendiko aldapetan galiziera entzutea errazagoa zen euskara baino, mila aldiz errazagoa. Ordutik «arraro» hitz egin zuten horiekin behin baino gehiagotan egin dut topo. Bide eta amets askotan egin dugu topo, ezinbestean. Baina bideetan ibiltzeko, ezinbestekoak ditugu berbak. Berba barik, kontatzeko istoriorik ez genuke izango. Berba barik, ametsak ezingo genituzke partekatu. Berba barik, herrien artean ezingo genituzke harremanak ondu. Eta hori da garrantzitsuena, bideetan bizitakoa kontatzea, bidegorrietan bizitakoa kontatzea. Sechu Sende galizieraren eguneroko errealitatearen bidegorritik abiatzen da, txispaz eta errebeldiaz abiatu ere. Bidetxoetan gertatu direnak, gertatzen direnak eta gertatzeko daudenak istorio bilakatu ditu, fresko-fresko. Hainbat egoera dakar berak hizpidera: horietako batzuk gurean zeharo desberdinak badira ere, asko eta asko gurera ederto egokitzen dira, ia-ia hitzez hitz. Izan ere, euskaldunok, hizkuntza kontuetan betiere, lepoa ekialdera bihurritzen dugu gehiengotan. Gure ispilua ez da izaten askotan mendebaldean dagoen herri galiziarra, nahiz eta elkarrekin amets egiteko herri ederra den. Liburu honen bidez, lepoa mendebaldera bihurritzeko gonbita txikia egin nahi dut, han ere zer ikusia eta zer ikasia badugulakoan.

Liburu hau ez da apalategian gorde beharreko liburu horien modukoa. Inondik ere ez. Liburu honi zikin-  
dua, lohitua, erabilia izatea gustatzen zaio. Galizia  
aldean liburuko hainbat pasarterekin bideoak egin  
dituzte, irakurtzeko gidak egin dituzte irakaskuntzan  
erabiltzeko, Interneteko hainbat webgunetan agertu  
dira liburuaren pasarteak, komikiak egin dituzte...  
Gonbidatzen zaituztet horiek guztiak eta gehiago  
egitera, euskaraz eta euskaratik, edo euskaraz eta gali-  
zieratik. Galizieratik eta euskaraz, hizkuntzen bide-  
gorrietan barna amets egitera deitu. *Made in Galiza*  
made in Euskal Herria ere izan daitekeelako.

TXERRA RODRIGUEZ





Maite zaitut idazten dut leku komunetan  
eta sekretuetan.

Maite zaitut idazten dut  
ahosabaiarekin ere.

Maite zaitut idazten dut zure aterki morean,  
eta Maite zaitut idazten dudan lekuan jaiotzen da ortzadarra.  
Erosketa zerrendan idazten dut Maite zaitut  
hitz laranja eta hitz artazien artean  
eta idazten dut Maite zaitut botila baten barruan.

Pertsona asko gara gaur  
Maite zaitut idazten dugunak Maite zaitut-en herrian,  
mila Maite zaitut gure hizkuntzan,  
larruan, zuhaitzetan edo hormetan idatziak.

Nire hizkuntzan inork idazten duen  
Maite zaitut bakoitzean  
dago nire Maite zaitut,  
dagoen lekuan dagoela.  
Maite zaitut-ek distira egiten du,  
horregatik idazten dut Maite zaitut,  
nik beste pertsona askorekin batera  
gaur ere idazten ditugu  
milioika Maite zaitut lurreko bost mila hizkuntzetan egunero.

SECHU SENDE, 2012

*Hitz egiten dakiena ez da inoiz pobre izango.*

Afrikako esaera zaharra

ORAIN DELA EGUN BATZUK bete dut lehen urtea, eta «Clara» hitza entzuten dudanean jaramon egiten dut.

Egunero gauza berriak ikasten ditut etxe honetan bizi direnei esker. Amak beste izen bat dauka, Laura, eta amak Tomas esaten duenean badakit hori aita dela. Lantzean behin, beste pertsona batzuk etor-tzen dira etxera. Begietan zimurrak dituzte eta beti barrezka ari dira: aitona eta amona. Rula ere badago, txikitxo da, eta kaiola baten barruan bizi da.

Badakit nirea adin konplikatua dela, edozein unetan hasi beharko dudalako hizketan. Eta hori ez da egunero egiten. Hitz egiteak asko errazten ditu gauzak. Hitz egiten hasten naizenean, behingoz jakingo dute gauez negar egiten dudan guztietan ez naizela egarri edo tripako minez. Batzuetan ulertzen ez ditudan gauzak amesten ditut, eta horregatik egiten dut negar. Gauza asko ez ditut ulertzen, baina bereziki kezkatzen nau horietako batek.

Etxe honetan oso arraro egiten dute hitz. Ama, aita eta aitona-amonak bazkaltzen ari direnean, adibidez, esaten dute *sopa, pásame o pan, un pouco de sal* edo *biscoito*. Nik belarria jartzen dut eta ikasi egiten dut apurka-apurka.

Rula bestelakoa da. Ezberdin hitz egiten du, kantuka edo txistuka, amak esaten duen modura. Zein ondo kantatzen duen Rula, egin txistu apur bat, Rulatxo. Lehen bakarrik nengoenean batzuetan saiatzen nintzen Rulak bezala hitz egiten, baina inoiz ez nekien zer esan nahi nuen. «Ffffi» edo «ffffu» baino ez dakit esaten, Rulak bezala.

Baina hori ez da inondik ere arazoa, etxe honetan inork ez baitu hitz egiten Rulak egiten duen moduan. Amak lantzean behin esaten dizkio gauza politak: «aditu, politta, alpistea dakarkizut»; baina amak esaten duen moduan, zarata arrarorik egin gabe.

Amari, aitari, aitonari eta amonari entzunda, ehun hitz baino gehiago ikasi ditut: *peido, pis, a nena ten fame, xa é de noite, esta nena é moi tranquila e moi lista, vai chover* eta abar. Hitzak entzun, niretzat gorde eta errepikatzen ditut isilpean. Beste hainbat hitz ere entzuten ditut, baina horiek ez ditut ulertzen: *quilómetro, enciclopedia* edo *empanada de xoubas*.

Kontua da amak aitarekin nitaz hitz egiten duenean zera esaten duela: *A nena está esperta*. Eta bat-batean nigana dator eta esaten dit: *Ay, mi niña, que ya despertó, ya despertastes, Clara?* Badakit Clara ni naizena, baina ez zergatik deitzen didan *mi niña*, ni *a súa nena* banaiz. Aitak ere gauza bera egiten du: amo-

narekin ari da eta esaten du: *A nena debe de ter fame*, eta gero esaten dit: *Clara, cosita, tienes hambre?* Nik asko irekitzen ditut begiak, zer gertatzen den ulertzeko asmoz.

Egoera arraroa da, baina behin eta berriz errepikatzen da. Euren artean ez, baina nirekin ari direnean aldatzen dute hitz egiteko modua.

Orain dilema bat dut. Badakit itxaroten ari direla hitz egiten noiz hasiko. Isilean badakit *Ma-Má* esaten dagoeneko. Bakarrik nagoenean esaten dut, ez dudalako lehendabiziko aldiz txarto esan nahi. Baina nire dilema beste bat da: ez dakit nola egingo dudan. Gurasoek eta aitona-amonek beren artean egiten duten moduan edo gurasoek nirekin egiten duten moduan.

Rulak, behintzat, beti egiten du berdin.

Ez ditut gurasoak ulertzen. Oraindik, itxaron egingo dut pixka bat, ea auzia behingoz argitzen dudan. Dena den, nik beren erara egitea nahi ez badute, hori egiteko arrazoiak izango dituzte. Diot nik...



## FILM LABURRA

### 1

ORTUAREN AMAIERAN MERTXIKONDOA DAGO. Hango mertxikak irekita zeuden, izotzak eta harriak ireki zituen.

—Inork ez ditu nahi izango mertxika hauek —esan zuen Iriaren amak—. Begira, hezurra ikusten zaie.

—Ba, niri gustatzen zaizkit —esan zuen hark—. Oso gozo daude.

—Umm, ez dakit...

Iriak saski bat hartu zuen, mertxikaz bete eta bere logelara eraman zituen; bati egin zion haginka, eta liburua hartu eta irakurtzen hasi zen. Ordubete geroago jaitsi zen kamioian fruta sartzen laguntzera, eta motorraren hotsa nola isiltzen zen aditu zuen, apurka-apurka, haranean zehar, eta irribarre egin zuen.

### 2

Marcos nekatuta heldu zen etxera. Zapatak eta jaka grisa kendu zituen. Mertxika bat hartu zuen, sofan jesarri eta telebista piztu zuen.

Haginka egin zion eta eguneko unerik onena iruditu zitzaion. Orduan konturatu zen: «Bai arraroa –pentsatu zuen– mertxika irekita dago».

Hezurra ikus zitekeen, eta hezuraren barruan zer edo zer zuria. Paper txiki bat. Mertxikaren hezurretik atera, luzatu eta irakurtzen hasi zen.

### 3

Lucia gidatzen ari zen, bero egiten zuen eta leihoa jaitsita zeraman. Amaren etxera zihoan, hirurogei urte egin behar zituelako. Poesia-liburu bat erosi zion, eta mertxika kilo bat zeraman, bertakoak, mertxiken zapore osoa duten horietakoak.

Eskua poltsara eraman eta ale bat hartu zuen. Jaten amaitu zuenean, autoko hautsontzia ireki zuen hezurra han uzteko. Orduan ohartu zen hezuraren barruan zerbait bazela. Autoa zelai batean gelditu zuen, eta barruko paper txikia hezurretik atera. Zerbait zekarren idatzita.

### 4

—Kaixo –esan zuen luciak.

—Kaixo –erantzun Marcosek.

—Ez nekien etorri behar zenuenik... Baina azkenean... Etxean euritako gorria nuen eta...



—Nik ez dakit zer esan... Oraintxe bertan erosi dut hau...

—Mertxika baten barruan aurkitu dut papertxo hau...

—Nik ere bai... Zer dio?

—«Autobus geltokira bazoaz hurrengo hilaren 26an arratsaldeko 8etan euritako gorri batekin, norbait interesgarria ezagutuko duzu». Eta zureak?

—Gauza bera.

—...

—Eta zuk ez duzu idatzi, jakina...

—O, o... mertxikak erosi nituen Marinhoko supermerkatu batean.

—Nik hemen, fruta-denda batean.

—Arraroa, ezta?

—Bai, ba...

—Eta orain?

—Ez dakit. Kafe bat hartuko dugu?

—Ederki.

—Itxaron. Eta besteren bat badator euritako gorri batekin?

—Umm... Nahi baduzu, itxaron dezakegu pixka bat.

—Zuk uste?

—Ez dakit, eta zuk?

—Nik nahiago dut kafe bat hartzera joan...

—Nik ere bai.

—Goazen ba.

—Ezer baino lehen, Lucia naiz...

—Urte askotarako, Lucia, ni Marcos, musu bat...

- Urte askotarako.
- Hara, euria hasi du. Uda bete-betea nork esan behar zuen...
- Hara, nire euritakoa apurtuta dago. Bi hagatxo ditu apurtuta.
- Lasai, irekiko dut neurea.
- A ze zorrea, ezta?
- Zer ba?
- Ez, ezer ez, euritakoagatik, euria eta hori guztia, hau da zorrea, hau.
- Bai.
- Uf, kristorena ari da botatzen.
- Besotik heldu nahi badidazu...
- Bai, hobe izango da... Bide batez, nola zegoen zure mertxika?
- Gozo-gozoa, eta zurea?
- Ummmm...

—Kaixo.

—Hola.

—Esadazu...

—Mire, no sé si me puede ayudar. Yo es que perdí una cosa y quisiera saber si la puedo recuperar.

—Oso ondo. Horretarako gaude, zer galdu duzu?

—Yo es que perdí mi lengua.

—Hara... aizu, nolakoa zen?

—Pues mire, muy parecida a la suya.

—A, bai, hemen horrelako asko ditugu... Izan ere, hemen ditugun hizkuntza galdu guztiak horrelakoak dira. Beste daturen bat emango bazenit...

—...

—Noiz galdu zenuen?

—Uff, no me acuerdo bien... Pienso que hace unos diez o once años, sí, once años, en verano, debía ser agosto...

—Abuztua... Eta badakizu non galdu zenuen?

—Umm... En una discoteca, fue en una discoteca, el día que conocí a mi mujer...

—Zer herritan?

—Aquí, aquí mismo.

—Eta ez duzu gogoratuko diskotekaren izena?

—La discoteca se llamaba, se llamaba..., sí,... Coyote!

La discoteca se llamaba Coyote.

—Ondo, begiratuko dut gure datu-basean... Hemen!

—Está?

—Ea, ea, hemen dugu... Bai, hamar hizkuntza izan litezke... Begira... Datu gehiago behar nituzke... Ez dakit, beste ezaugarriren bat... Deskribatu deza-kezu?

—Pues no le sé, casi ni me acuerdo...

—Aizu, hemen dugu sisipasa inplosiboa duen bat.

—Perdón?

—Gogoratzen al duzu *lus* edo *felis* horrela s-rekin esaten zenuenik?

—Umm, pienso que sí, sí, sí! Como mi madre, sabe, es que soy de la zona de Malpica...

—Ba, honek izan behar du.

—Ahá.

—Itxaroten baduzu unetxo batean. Biltegira noa haren bila.

—...

—Hementxe duzu. Ea, ezagutzen al duzu?

—Oh, ea, bai, bai, kaixo, kaixo, probatzen, probatzen, bai, nire hizkuntza da, ea, *lus*, *felis*, neu, neu, bat, bi, hiru, outx, hau poza! Begira, betiko galdua nuela uste nuen. Ez nekien horrelako bulegorik

zenik eta esan zidatenean... Gaur bertan esango diot emazteari etortzeko bere hizkuntza berreskuratze-ko. Hark ere galdu zuen orain dela urte batzuk, eta orain, orain... umea izan behar dugu, eta... badakizu, nahi genuke hark ikastea...

—Bai, bai, badakit, horregatik ireki zen bule-  
goa. Ez duzu imajinatzen zenbat hizkuntza dugun  
hemen.

—Asko?

—Puff...

—Ba...

—Ba, ezer ez, motel, poztu zaitez.

—Asko eskertzen dizut...

—Lasai, motel, ez da ezer...

—Zenbat den esango didazu?

—Zer?

—Zerbait ordaindu behar dut?

—Ez, motel, ez... Honek ez du preziorik... Hizkuntza  
zurea da... Hori bai, tentuz ibili, eta ez galdu berriro, e?

—Okei, okei, uff.

—Eta hizkuntza berreskuratu nahi duen edonor  
ezagutuz gero, galdu duen norbait, esan hona etor-  
tzeko.

—Ba, oso ondo. Aio, eta egun on.

—Hala, aio, ondo ibili.

## HITZEN LAPURRA

ASPALDIKO HERRI HARTAN hitzak ogia edo ura bezain baliozkoak ziren, munduko beste edozein herritan ziren bezala.

Egun batean atzerritar bat heldu zen, eta bidean geratu zen emakume batekin hizketan. Gizon hark labana zeraman gerrikoan eta ahoan urrezko haginak. Hitz eta pitz aritu ziren, eta, halako batean, atzerritarrak zast! egin zuen eskuarekin, eta hitza lapurtu zion andreari. Zaldi gainera salto egin eta arrapaladan egin zuen alde.

Hitzen lapurrak zamalkatuz jarraitu zuen eta herritxo batera heldu zen. Ostatura sartu eta mediku batekin hasi zen hizketan. Lapurrak urrezko txanpona atera, eta haxe esan zion:

—Txanpon hau emango dizut esan dituzun azken hiru hitzen truke.

Medikuak ezetz esan zuen, hitzak ez zirela bereak, beste pertsona askorenak zirela. Hitzen lapurrak,

ordea, basoan itxaron zion, eta, labana lepoan jarrita, hiru hitz haiek lapurtu zizkion, urrezko irribarrea galdu gabe.

Hurrengo egunean, lapurra hiri batera heldu eta jauregi batean sartu zen. Esku batean urrez betetako poltsa bat zeraman, eta bestean hitzez betetako poltsa bat. Jaunari urrea erakutsiz hauxe esan zion:

—Erosiko dizkizut gaur esan dituzun hitz guztiak.

—Ez –esan zuen jaunak–, hitzak ez dira saltzen.

Baina atzerritarrak labanarekin egin zion mehatxu, eta hitz guztiak lapurtu zizkion banaka-banaka.

Hurrena, zaldun bati eraso zion hitzen lapurrak. Amodiozko kantetan espezializatutako poeta zen. Lapurrak ganibeta atera eta esan zion:

—Hitzak ala bizitza.

Poetak erantzun zion:

—Hitzak ez dira nireak, nire herriarenak baizik. Nik ez nizkizuke sekula salduko.

Hitzen lapurrak orduan bihotzetik erauzi zizkion hitzak.

Horrela, herriko guztiek jakin zuten hitzak lapurtzen ari zirela. Eta horietako askok armak hartu zituzten hitzak babesteko. Hiriko jendeak dio hitzak ondoen babestu zituztenak sega eta igitaia zeukaten nekazariak eta labana eta arpoiak zituzten marine-lak izan zirela. Eta emakumerik ausartenek lihozko alkandoren poltsikoetan ezkutatu zituzten hitzok.

Hala ere, hitzen lapurrak jarraitu egin zuen bere lana egiten: hitzak kendu zizkien irakurtzen hasten

ziren neskatoei eta zapatak eroatera joaten ziren mutikoei. Baita irakasleei ere eskoletan, eta legeak ezagutzen zituzten abokatuei ere bai. Eta pitinka-pitinka, herri horrek hitz asko galtzen jarraitu zuen. Eta pitinka-pitinka, pobretu egin zen, hitzak lapurtzen zizkioten herria zelako.

Antza denez, hitzak babestu eta sekretupean gordetzeko, idazteari utzi zioten hangoek. Eta, hitzen lapurra dela eta, pertsona askok, fidatu ezinik, mendeetan familia artean edo lagun artean bakarrik erabili bide zituzten beren hitzak.

Horrela, urteak pasatu dira, baina herri horretan, antza, askok oraindik beldur diote hitzen lapurrari. Eta esaten dute oraindik lantzean behin agertzen dela hitzen lapurra autobus-geltoki batean, loradenda batean edo eskola batean, poltsarekin, labanarekin eta urrezko haginekin.



KAFETEGIRA SARTU ZEN, begi haiekin maitemindu zen, harritu zen eta jakin zuen zerbait aurkitu zuela... «Uf» esan, eta hasi zen... Berriro begiratu zion, eta maitatzen, desiratzen hasi zen; pentsatu, eta kafe-tegiko mahairik hurbilenean jesarri zen, eta sentitu zuen, uf, hasi zela...

—Kaixo –esan zuen hark—. Zer nahi duzu?

—Nahi dut... kamamila.

Hurrengo egunean ordu berean sartu zen berriro kafetegian, eta hark han jarraitzen zuen, eta sentitu zuen, uf, maite zuela, benetan, hori pentsatu zuen.

—Kaixo –esan zuen berak—, zer nahi duzu?

—Nahi dut... ezki-ura.

Hirugarren egunean hura maitatzen jarraitzen zuen, eta besteak gauza bera senti zezakeela imajinatzen hasi zen orduan, uf.

—Kaixo, zer nahi duzu?

—Nahi dut... menda.

Laugarren egunean sentitu zuen ezin zuela gehiago, esan egin behar ziola. Esan behar diot, pentsatu zuen, uf.

—Kaixo, zer nahi duzu? —esan zuen hark.

—Nahi zaitut... zu.

Besteak begiak ireki zituen, «nola?», eta hark berriro ahopean esan zuen: «Nahi zaitut... zu». Eta esan zuen «Nahi zaitut... zu» hurrengo egunean ere, eta «Nahi zaitut... zu» hurrengoan ere, eta laugarrenean ere «Nahi zaitut... zu». Egun horretan, orduan, besteak begiekin esan zion: «Nik ere bai».

ORAIN DELA DENBORA ASKO, zerbait gertatu zen.

Etorkizunean bizi zen neskatoa jaio zen.

Manhá<sup>1</sup> izena jarri zioten eta jendeak ez zuen ulertu nola arraio gertatu zen hura.

Manhá udaberrira heltzen zen loreak baino lehenago.

Eta negua heldu aurretik, Manháren eskuak hotz zeuden.

Etorkizunean bizi zenez, pertsona guztiak aguretuak edo atsotuak ziren beretzat.

Galderak egin aurretik ematen zituen erantzunak.

Eta inork imajinatu ezin zuen gauzak esaten zituen.

Manhák atzera begiratzen zuenean, den-dena oso urrun zegoen.

Eta etorkizunean bizi zen emakumearen itzala eguzkia baino ordu batzuk aurreratuago zebilen.

---

1.- Bihar.

Etxe berriak zahar bihurtzen ziren hura haien  
ondotik pasatzen zenean.

Sagarrak haren eskuetan herdoildu egiten ziren.

Manhá ez zegoen inoiz ez hemen ez orain.

Manhá hil zen egunean, pertsonak iraganean bizi-  
tzeari utzi zioten.